

# Konbentuaren gora-beherak

**Konbentukoa kaliari bertan egondako moja konbentuak emoten dotsa izena. Makiñatxo arazo eta tira-biraren ostian altxau zan eta herrixan 106 urte emon ondoren Elorrixora martxau eben.**

**H**onek eta beste datu asko eta asko batzen dia Eugenio Rodríguez Condadok 1.998 urtian argira emondako "El monasterio de Sta. Ana de Elorrio" liburuan. Zehatz-mehatz batzen ditxu konbentuaren hastapenak Ermuan eta zerk eragin eban Elorrixora aldatu biharrak.

Historiak 1.556 urtera eruaten gaitxu, Marina Ruiz de Lobianoren testamentura. Bertan diñonez, bere ondasun guztixak bideratu nahi dauz Ermuan Sto. Domingo Ordenaren moja Monastegi bat fundatzeko. 1.580 urtian bere loba M<sup>a</sup> Alonsa de Barrutiak, Monastegiaren alde testatzen baitxa, Francisco de Lobiano osaba izendatuz Fundaziñuaren bultzatzaile legez. Harek lagatako ondasunak ez dia zuzenian Monastegirako erabiltzen: Marina zendu dala 31urtera eta M<sup>a</sup> Alonsaren herixotziaren 7 urtera emoten dia bixen nahixak betetze-ko lehen pausuak. Santiago parrokiako kabilduakin hainbat pleito eta harutz-honutz euki ostian, Calahorrako apezpikutzarta sartu bihar da bitartekari biharrak eiñaz. Elizaren bedeinkaziño guztixekin eta egokitze ikutu guztixak amaitxuta, 1.594 urtian inauguratzen da Monastegiaren lehen egoitza, Goienkalen. Hurrengo urtiak esturasun haundikuak izan arren, komunitatia haundituz doia eta beste nunbaitxera alde biharreko premiñia ikusten da.

Beste andra baten testamentuari esker aldatzen dia gauzak 1.598. urtian. María Ibañez de

Ategunek idatziz lagatzen dau Sta. Margaritaren Monastegian lurperatua izatiaren bere gogua eta bere ondasun askoren artian Barrenkaleko bere etxia emoten dau dohaitzan. Bertara aldatzen dia monjok, baiña han be euren egoeria ez da bapebe samurra: diruz urri ibil-

tziaz gain, kaltegarri suertatzen da monjen osasunerako etxia errekiaren kontra egotia eta honek gaiñezka eitzen daben bakoitzian ujalka sartzen da ura eureana, atrapautako dana aurrian erunda.

Baiña 1.671. urtian Elorrixoko andra haundiki baten testamentuak barriro aldatuko ditxu historiaren nundik-norakuak: M<sup>a</sup> Antonia de Areizagak bere ondasun guztiguztixak lagako ditxu konbentua Elorrixoko Sta. Ana etxe eta kapillara ekartzeko. Hango konzejuak (Udalak) gogotuta hartzen dau komunitatiaren etorreria, baiña tira eta saka askoko beste 29 urte pasau biharko dia moja ermuarrok Elorrixon euren buruak ikusi arte.

Ermuan zer laga eben? Gaur egunerarte iraun daben leku-izen bat eta familixa oso bat ezagutze-ko gaitxizena. Izagirretarrak izan dia Konbentua izandako etxiaren azken jabiak; atzekaldian eken ortuxuan ume-umetatik ezagutu eben Sta. Margaritaren hareharrizko irudi edar bat. Eskumako eskuan ekan zulotxuan inguruan batutako lorak ipintzen zotsien. 1.963. urtian, etxia bota ostian, Bilboko Eleiz Museora eruan zan 1.600 urtian datautako irudi errenazentista hau. Museo berian gordeta daoz Ermuko parrokiaren izandako egurrezko Kristo bat zutabiari lotuta, 1.610ekua, Judas eta Pilatosen Aste Santuko pasua eta XVIII. mendeko zetazko meza jantzixak, bordau edarrekin eindako dalmatika eta kasulla.

*Estibalitz González*



*Bilboko Eleiz Museoko Sta. Margarita, Ermuko konbentutik bertara eruandakua. Argazkia, Angel Gómez Lozano.*

**QUETZAL**

*Opari denda*  
Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea  
943 17 00 65

*Proba-Leku*  
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**ELUR**

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

Aldapa 1  
943 17 60 52